



# EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

**Double Bachelor's Degree in Business + Economics / Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza / Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza / Gradu Bikoitza: Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak / Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua / Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza / Ekonomia / Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa / Negozioen Kudeaketa / Marketina**

# Ekonomia eta Enpresa Fakultatea



Double Bachelor's Degree in Business + Economics **6. or.** / Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza **8. or.** / Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza **10. or.** / Gradu Bikoitza: Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak **12. or.** / Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua **14. or.** / Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza **16. or.** / Ekonomia **20. or.** / Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa **22. or.** / Negozioen Kudeaketa **24. or.** / Marketina **26. or.**

# Ekonomia, gizarte-zientzietan nagusi

Gizartearen eta banakoen baliabide materialen asebetetzea aztertzen duen gizarte-zientzia da ekonomia (antzinako grezieran: oikos, "etxe" + nomos, "lege"; beraz, "etxeke lege"). Horrenbestez, ekoizpena, salerosketak, kontsumoa eta errentaren banaketa aztertzen ditu. Bai sektore publikoak bai merkatuak paper garrantzitsua jokatzen dute gai horien ebazpenean. 2008an hasitako krisiak agerian utzi du ekonomia-zientziak indartu egin behar duela dimentsio etikoa eta gizarte-beharrei hobeto erantzun behar diela.

Enpresa-ikasketak, bestalde, enpresa-kudeaketa eta -estrategia lantzen dituen ekonomia-zientziaren adar bat dira. Arreta jartzen du kontabilitatean, giza baliabideetan, marketinean eta berrikuntzan, besteak beste.

GRADUAK	SARRIKO	ELCANO	GIPUZKOA	ARABA
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	✓		✓	✓
Negozioren Kudeaketa		✓		
Ekonomia	✓			
Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa	✓			
Marketina	✓			
<b>GRADU BIKOITZAK</b>	EAZ + Zuzenbidea	Negozioen Kudeaketa + Lan Harreman eta Giza Baliabideak	EAZ + Zuzenbidea	Ingeniaritza Mekanikoa + EAZ
	Business + Economics			EAZ + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
<b>NAZIOARTEKO TITULAZIO BIKOITZAK</b> (5 plaza)	<b>Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua (EAZ):</b> Berlin School of Economics and Law (Alemania), OTH Hochschule Regensburg (Alemania), Hochschule Mittweida (Alemania), Metropolia University of Applied Sciences (Finlandia), IUT de Bayonne et du Pays Basque (Frantzia), Université Jean Moulin Lyon 3 (Frantzia).			
	<b>Negozioren Kudeaketako Gradua:</b> Metropolia University of Applied Sciences (Finlandia), IUT de Bayonne et du Pays Basque (Frantzia), OTH Regensburg (Alemania).			
	<b>Marketineko Gradua:</b> Metropolia University of Applied Sciences (Finlandia), IUT de Bayonne et du Pays Basque (Frantzia), Université Jean Moulin Lyon 3 (Frantzia).			
<b>EAZ DUALA</b>	15 plaza		15 plaza	

## Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

### Sarriko

Lehendakari Agirre zumardia, 83. 48015 Bilbo

### Elcano

Elcano, 21. 48008 Bilbo

### Gipuzkoa

Oñati plaza, 1. 20018 Donostia

### Álava

Comandante Izarduy, 23. 01006 Gasteiz

946 013 603

[unai.tamayo@ehu.eus](mailto:unai.tamayo@ehu.eus)

[www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea](http://www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea)



[@upvehu](https://twitter.com/upvehu)



[@upvehu](https://www.facebook.com/upvehu)



[@upvehu\\_gara](https://www.instagram.com/upvehu_gara)



[UPV/EHU](https://www.linkedin.com/company/upvehu)



[UPV/EHU](https://www.youtube.com/channel/UCupvehu)



[UPV/EHU](https://vimeo.com/upvehu)

## LAU ZENTRO HIRU LURRALDETAN

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea 1818tik ari da eskolak ematen Elkanon. Merkataritzako ikasketak ematen hasi zen munduko laugarren zentroa izan zen. 1950eko hamarkadan, bultzada eman zitzaion, Ekonomiako ikasketak sartu baitziren eta Sarriko sortu baitzen. Elkano eta Sarrikoz gainera, Donostiako eta Gasteizko atalek ere osatzen dute Fakultatea. Beraz, 200 urtetik gora daramatzagu euskal ekonomiarako profesionalak sortzen.

Unitate guztiek dauzkate liburutegiak, informatikagelak, ikasketa-gelak, areto nagusiak, etab.



## Zientzia eta etika uztartuz



## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Mugikortasun programen bidez, egonaldiak egin ahal izango dituzu estatuko beste erkidegoetan eta atzerrian (Europan eta mundu osoan).

Enpresetan praktikak egiteko mugikortasun programak ere bultzatzen ditugu, esaterako: **Erasmus+ internship.**

- ♥ **SICUE**  
Espainiako unibertsitateetan
- ♥ **ERASMUS +**  
Europako unibertsitateetan
- ♥ **Latinoamerika eta beste norako batzuk**  
Latinoamerikako eta AEBetako unibertsitateetan, baita Kanadan eta Asian ere



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

## IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

### Gradu guztiak:


Oinarrizko eta nahitaezko irakasgaiak eta hautazko batzuk, euskaraz eta gaztelaniaz.

Gero eta irakasgai gehiago eskaintzen dira ingelesez.

Graduko titulua lortzeko, ikasleak frogatu beharko du nazioarteko hizkuntza batean komunikatzeko gai dela, ingelesez ahal delarik.

UPV/EHUK euskaraz ikastera animatzen zaitu!

## NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



## UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

Enpresetan eta erakundeetan eginiko kanpoko praktikei esker, harreman zuzenak egingo dituzu etorkizunean zure lantoki izan ahalko diren enpresa eta antolakuntzekin.

Ikasitakoa alor profesionalean aplikatzeko aukera izango duzu, eta ezagutza eta teknika berriak zeure kabuz lantzeko, egoera errealean aplikatu ahal izateko.

Praktikak antolatzeko, fakultateak hitzarmenak egiten ditu enprekin eta beste erakunde batzuekin. Bi tutore izango dituzu, bata fakultatean eta bestea praktikak egingo dituzun enpresan edo erakundeetan.

Praktiken bidez, 18 ECTS kreditu eskura daitezke gehienez (450 ordu), baina, egin aurretik, zure tituluaren kredituen erdiak gainditu beharko dituzu.

Bizi Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Campusak!



	<u>Bizkaia</u>	<u>Gipuzkoa</u>	<u>Araba</u>
 Ikasleak	+22.000	+10.000	+7.000
 Ikastegiak	9	9	7
 Bibliotekak	6	3	2
<u>Campus guztiek dituzte:</u>			
 Emplegu Gunea	 Kiroldegi bat Itunpeko kirol zentroak	 Kultura, musika eta arte jarduerak	
 Unibertsitate egoitza bat Ostatu zerbitzua: ostatua aurkitzen lagunduko dizugu	 Ikasi hizkuntzak Hizkuntza egiaztagiria		



## Double Bachelor's Degree BUSINESS AND ECONOMICS

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Business & Economics gradu bikoitzak Ekonomiaren ikuspegi zabala eta Enpresaren Administrazio eta Zuzendaritzaren arlo zehatzagoa uztartzen ditu.

Ekonomiak, gizarte zientzia gisa, produkzioa, kontsumoa eta errentaren banaketa aztertzen ditu; nazioarteko mailan eta esparru nazionalan. Ekonomia diziplina arteko alorra da, eta historiarekin, zuzenbidearekin, administrazioarekin, enpresarekin... erlazioetatutako teoriak erabiltzen ditu bere eruedetan. Tekniken alorrean, ikasketa planak arreta berezia jartzen du tresna matematiko-estatistikoaren trebakuntzan.

Bestalde, Enpresaren Administrazio eta Zuzendaritzaren ikuspegiak irakatziko dizu zure enpresa proiektua martxan jartzen, enpresa edo erakunde bat kudeatzen, antolatzen eta gidatzen. Prestakuntza osoa jasoko duzu, hainbat alorretan: ekoizpena, marketina, giza baliabideak, finantzak, kontabilitatea, etabar. Den-denak funtsezkoak gaur eguneko ingurune ekonomiko, sozio-ekonomiko eta teknologiko konplexu eta aldakorrera egokitzeko.

\* Gradu hau Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko), Bilbon, ematen da.

### Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Nazioarteko ekonomia, nazionala, eta tokikoa ulertzeko gaitasuna emango dizu, erakundeak eta eragile ekonomikoak aztertuz. Epe laburreko errealitatea zein epe luzekoa aztertuz, gobernuen politika makroekonomikoak eta egiturazkoak ulertzeko dituzu.

Sormenerako eta ekintzailetasunerako sena garatzeko, enpresa edo erakunde bat gidatzeko, taldean lan egiteko eta atzerriko hizkuntza batean moldatzeko.

### Irteera profesionalak:

Gradu bikoitz honek irteera ugari eskaintzen ditu, bai sektore publikoan zein pribatuan ere: enpresak, banketxeak edo aholkularitza-enpresak, nazioarteko erakundeak (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea, Europako Banku Zentrala eta Europako Batzordea) eta administrazioak. Gainera, gradu bikoitz honek zure negozioa martxan jartzeko gaitasuna emango dizu.

Lehenengo ikasturtean, nahitaezkoa izango da ingelesaren ezagutza bi modu hauetako baten bidez egiaztatzea:

- Gutxienez 8ko nota lortzea Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioko ingeles azterketan.
- Ingeleseko B2 titulua aurkeztea.

Enpresa mundua eta errealitate ekonomikoak, soziala eta politikoa interesatzen bazaizkizu, jakin-nahia baduzu, pertsona ekintzailea eta dinamikoa bazara, taldean aritzea atsegin baduzu, analisirako, gogoetarako, sintesirako eta kritikarako gaitasuna baduzu, eta gizarte gaiekiko sentikortasuna, argudiatzeko gaitasuna eta gatazkak konpontzen laguntzeko bokazioa, Business & Economics Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

---

## IKASKETA PLANA (INGELESA)

---

### LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilabetea

- Introduction to Accounting
- Introduction to Economics I: Principles of Microeconomics
- Introduction to Law
- Mathematics I
- Business Economics: Introduction

#### 2. lauhilabetea

- Financial Accounting
- Business Economics: Organization & Management
- Economic History
- Introduction to Economics II: Principles of Macroeconomics
- Mathematics II

---

### BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilabetea

- Cost Accounting
- Mathematics of Financial Operations
- Statistics and Data Analysis
- Microeconomics
- Macroeconomics

#### 2. lauhilabetea

- Advanced Financial Accounting
- Finance Management: Financing
- Statistics Applied to Business
- Intermediate Macroeconomics
- Intermediate Microeconomics

---

### HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilabetea

- Accounting Analysis
- Strategic Management: Business Policy
- Introduction to Econometrics
- Tax & Monetary Policy
- Market Power & Strategy

#### 2. lauhilabetea

- Consolidated Financial Statements
- Strategic Management: Growth and Development of Businesses
- Applied Econometrics
- Uncertainty in Contracts
- Public-sector Economics: Spending

---

### LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilabetea

- Finance Management: Investments
- Company Law
- Sales Management: Introduction
- Company Tax Regime
- Economic History of Contemporary Spain

#### 2. lauhilabetea

- Marketing Management: Policies
- Economic Structure
- Economics of Development
- Dynamic Macroeconomics
- Information Systems for Business Management

---

### BOSGARREN MAILA 36 kreditu (nahitaezko 12 kreditu + GRADU AMAIERAKO LANAK 24 kreditu)

#### 1. lauhilabetea

- International Economics
- Institutions & Regulation of the Economy
- Final Degree Project Economics
- Final Degree Project Business

#### GUZTIRA 276 KREDITU

1. Ikasle guztiak egonaldi bat egingo dute atzerrian, 120 kreditu gainditu ondoren, sei hileko bat, gutxienez.
2. Ikasleak, nahi izanez gero, kanpoko praktikak egin ahal izango ditu, gehienez ere 24 kreditukoak. Praktika horiek ikaslearen espediente akademikoan jasoko dira, baldin eta graduko tituluak eskatu aurretik egiten badira.

## Gradu Bikoitza

# ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA + KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN INFORMATIKAREN INGENIARITZA



## Jakintza adarrak: **Gizarte eta Lege Zientziak** - **Ingeniaritza eta Arkitektura**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako gradu bikoitzak bateratu egiten ditu digitalizazioaren eta datu kopuru handien erabileraren egungo testuinguruan (4.0 industria) enpresen garapenerako oinarrikoak diren bi titulazio. Prestakuntza osoa eskaintzen du enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritzaren arloan, konbinatu egiten baititu enpresen kudeaketako gaitasunak eta informazioaren kudeaketarako tresna informatikoen ezagutza eta erabilera.

Gradu bikoitz honek aukera emango die tituludunei enpresen eta informazioaren gizartearen erronkei erantzuteko. Batetik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak baliabideak eta ezagutzak ematen ditu enpresa edo erakunde bat kudeatu, antolatu eta zuzentzeko, eta enpresa proiektu bat abian jartzeko. Bestetik, horren osagarri, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Graduak gaitasunak ematen ditu erakundeen beharretara egokitutako soluzio informatikoak sortzeko, diseinatzeko, garatzeko eta hedatzeko, informazioa kudeatzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatu ahal izateko. UPV/EHUk lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu.

\* Gradu bikoitzaren klaseak Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Gasteiz) eta Gasteizko Ingeniaritza Eskolan izango dira.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

## Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Bertako nahiz atzerriko enpresa baten edozein arlo funtzional kudeatzeko, antolatzeko eta zuzentzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatzeko. Taldean lan egiteko, erantzukizuna, errespetua, ekimena eta lidergoa erakutsiz, kultura, hizkuntza eta diziplina anitzeko ingurunean. Sistema, zerbitzu eta aplikazio informatikoak sortzeko, garatzeko eta mantentzeko, software ingeniaritzako metodoak erabilia; proiektuak planifikatzeko eta sinatzeko; hardwarea, softwarea eta sareak integratuta, sistema edo arkitektura informatiko zentralizatuak edo banatuak garatzeko; hardware eta software plataformak ebaluatzeko eta hautatzeko; eta horien erabilerraztasuna eta ergonomia diseinatzeko.

## Irteera profesionalak:

Arlo hauetan lan egin ahal izango duzu:

- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza sailak
- Ekonomia eta finantza kudeaketa eta zerga arlokoa
- Estrategia zuzendaritza eta giza baliabideena
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Informazio sistemen diseinua, eraikuntza eta mantentzea sektore askotako erakunde eta enpresetan
- IKTen sektoreko enpresak
- Enpresa publiko eta pribatuen informatika sailak
- Informatikako aholkularitza enpresak
- Zerbitzu informatikoen enpresak: aplikazioen eta produktu informatikoen garapena
- Bideo jokoen garapena
- 4.0 industria ekosistema
- Sarbidea ematen du irakaskuntzara eta administrazio publikoetara
- Sarbidea ematen du master ikasketetara

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak eskuratuko dituzu.

**Enpresaren mundua eta errealitate ekonomiko eta soziala interesatzen bazaizkizu, ekintzailea bazara, ordenagailuak eta beren funtzionamendua gustuko badituzu, ingelesezko testu tekniko eta zientifiko errazak ulertzeko gai bazara, zenbakiekin trebea bazara, eta ulermen abstrakturako gaitasuna, arrazonamendu logikoa eta trebezia deduktiboa badituzu, zure profila guztiz egokia da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzerako.**



---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 72 kreditu

#### 1. lauhilekoa

- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Kontabilitaterako Sarrera
- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Análisi Matematikoa
- Konputagailuen Teknologiaren Oinarriak
- Oinarrizko Programazioa

#### 2. lauhilekoa

- Finantza Kontabilitatea
  - Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
  - Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
  - Kalkulua
  - Programazio Modularra ea Objektuetara Bideratutako Orientazioa
  - Programazioaren Metodologia
- 

### BIGARREN MAILA 72 kreditu

#### 1. lauhilekoa

- Zuzenbiderako Sarrera
- Estatistika eta Datuen Análisi
- Kostuen Kontabilitatea
- Sistema Digitalak Diseinatzeko Oinarriak
- Aljebra
- Ikerketa Operatiboa

#### 2. lauhilekoa

- Historia Ekonomikoa
  - Enpresari Aplikatutako Estatistika
  - Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
  - Konputagailuen Egitura
  - Matematika Diskretua
  - Datu-baseak
- 

### HIRUGARREN MAILA 72 kreditu

#### 1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Mikroekonomia
- Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera
- Konputagailuen Arkitektura
- Lengoaiak, Konputazioa eta Sistema Adimendunak
- Datu-egiturak eta Algoritmoak

#### 2. lauhilekoa

- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
  - Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
  - Egitura Ekonomikoa
  - Sistema Eragileen Oinarriak
  - Software Ingeniaritza
  - Enpresak Kudeatzeko Softwarea
- 

### LAUGARREN MAILA 72 kreditu

#### 1. lauhilekoa

- Kontabilitate Análisi
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Makroekonomia
- Ekonometria
- Konputagailu Sareen Oinarriak
- Datu-baseen Diseinua

#### 2. lauhilekoa

- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
  - Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
  - Datu-baseen Kudeaketa
  - Web Sistemak
  - Proiektuen Kudeaketa
  - Erabakiak Hartzeko Euskarri Sistemak
- 

### BOSGARREN MAILA 66 kreditu

#### 1. lauhilekoa

- Enpresa Zuzenbidea
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Informazio Sistemen Análisi eta Diseinua
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Kudeaketa Integratuko Sistemak
- Informazio Sistemen Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak

#### 2. lauhilekoa

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana
- Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Amaierako Lana

# Gradu Bikoitza

## INGENIARITZA MEKANIKOA + ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA



### Jakintza adarrak: **Ingeniaritza eta Arkitektura - Gizarte eta Lege Zientziak**

Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza berria da estatu osoan. Enplegarritasunik handiena duten titulazioetako bi bateratzen ditu eta prestakuntza osoa eskaintzen du industria enpresen kudeaketarako, konbinatu egiten baititu industriarako ezagutza teknikoak eta enpresa kudeaketako gaitasunak.

Gradu bikoitz hau oso lotuta dago, orokorrean, enpresaren berrikuntzarekin eta, bereziki, industriarenarekin. Batetik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduak baliabideak eta ezagutzak ematen ditu enpresa edo erakunde bat kudeatu, antolatu eta zuzentzeko, eta enpresa proiektu bat abian jartzeko. Bestetik, Ingeniaritza Mekanikoko Graduak gaitasuna ematen du, oro har, ingeniartzako eta, zehazki, ingeniartza mekanikoko proiektu teknikoak proposatu, landu, zuzendu, gauzatu eta ustiatzeko, industria ingeniari teknikoaren lanbiderako ematen dituen ahalmenen bidez.

UPV/EHUk lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu.

*\* Gradu bikoitzaren klaseak Gasteizko Ingeniaritza Eskolan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Gasteiz) izango dira.*

### Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Egiturak, ekipo mekanikoak, instalazio energetikoak eta instalazio elektriko eta elektronikoak eraiki, konpondu, instalatu eta muntatzeko industria ingeniartzako proiektuak eta fabrikazio eta automatizazio prozesuetarako balioko dutenak idatzi eta garatzeko. Bertako nahiz atzerriko enpresa baten edozein arlo funtzional kudeatzeko, antolatzeko eta zuzentzeko, eta antolaketa zein kudeaketa arazoak konpontzeko. Taldean lan egiteko, erantzukizuna, errespetua, ekimena eta lidergoa erakutsiz, kultura, hizkuntza eta diziplina anitzeko ingurunean.

### Irteera profesionalak:

Arlo hauetan lan egin ahal izango duzu:

- Logistikako eta mantenimenduko enpresak
- Proiektuen ingeniartzako enpresak
- Teknologia guneak edo I+G+B sailak
- Merkaturatze, antolakuntza eta plangintza sailak
- Ekonomia eta finantza kudeaketa eta zerga arlokoa
- Estrategia zuzendaritza eta giza baliabideena
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Sarbidea ematen du master ikasketetara

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak eskuratuko dituzu.

Azkenik, irakaskuntzan eta administrazio publikoetan ere aritu ahal izango zara.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

**Pertsona sortzailea bazara, zenbakiekin trebea, ulermen abstraktua eta arrazonamendu logikoa badituzu, eta enpresaren mundua eta errealitate ekonomiko eta soziala interesatzen bazaizkizu, Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.**

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA (75 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Kontabilitaterako Sarrera
- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Informatikaren Oinarriak

#### 2. lauhilekoa

- Finantza Kontabilitatea
- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak

Kalkulua (urtekoa)

Ingeniaritzaren Oinarri Fisikoak (urtekoa)

Ingeniaritzaren Oinarri Kimikoak (urtekoa)

---

### BIGARREN MAILA (75 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Zuzenbiderako Sarrera
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Aljebra

#### 2. lauhilekoa

- Historia Ekonomikoa
- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Fluidoaren Mekanika

Adierazpen Grafikoa (urtekoa)

Mekanika Aplikatua (urtekoa)

Teknologia Elektroaren Oinarriak (urtekoa)

---

### HIRUGARREN MAILA (75 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Mikroekonomia
- Merkataritza Zuzendaritzarako Sarrera
- Materialen Zientzia
- Industria Elektronikoa
- Ingeniaritza Termikoa
- Makinen Zinematika eta Dinamika

#### 2. lauhilekoa

- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
  - Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
  - Egitura Ekonomikoa
  - Automatismoa eta Kontrola
  - Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak
- 

### LAUGARREN MAILA (75 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Kontabilitate Analisia
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Makroekonomia
- Ekonometria
- Materialen Erresistentzia eta Elastikotasuna
- Adierazpen Grafikoan Sakontzea
- Teknologia Mekanikoa

#### 2. lauhilekoa

- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
  - Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
  - Makinen Diseinua
  - Industria Egiturak eta Eraikuntzak
- 

### BOSGARREN MAILA (72 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Enpresa Zuzenbidea
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Proiektuen Rudeaketa
- Ekoizpenaren Antolakuntza
- Ingurumen Teknologia

#### 2. lauhilekoa

- Instalazio eta Makina Termikoak
- Instalazio eta Makina Hidraulikoak
- Ingeniaritza Mekanikoko Gradu Amaierako Lana
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana



## Gradu Bikoitza

# NEGOZIOEN KUDEAKETA + LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEAK

### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradu bikoitzak arlo ekonomikoan eta enpresen gestioan profesionalki aritu nahi duten eta horretarako bokazioa duten ikasleak ditu helburuko jasotzaile, bai eta lanaren munduan, lan harremanen eta giza baliabideen arloan ere. Enplegu falta eta dagoen lanaren kalitate eskasa direla gaur egun gure gizartearen kezka nagusia. Aldi berean, euskal enpresa gehien-gehienak txiki eta ertainak dira eta aholkularitza eta kudeaketa ona behar dute. Horregatik, gradu bikoitz honek erantzuna ematen dio arlo juridiko eta ekonomikoan formatutako profesionalen beharrari, gizartearen eta pertsonen premiekiko konpromiso handia agertuko duten profesionalak. Bost ikasturte akademikotan zehar, gaitasun eta trebetasun ugari eskuratuko dituzu eta jaso beharreko diziplina anitzeko prestakuntza osoa jasoko duzu; hau dena enpresa eta lan munduaren ikuspegi zabal eta kualifikatua lortzearen, edozein enpresa zein antolakunde gestionatzeko gai izan zaitezten edo zeure enpresa proiektuari ekin diezaiozun, lan agertoki berriak ulertu, interpretatu eta bertan parte hartzeko gai zarelarik.

Baldin eta gaitasun analitikoak baduzu; antolatze eta plangintzak egiteko gai bazara; interesgarri baderitzazu ekonomiari, enpresei eta lan munduko gaiei, edozein eratakoak direla ere; inguruko gizarte, ekonomia, kultura eta politikaren errealitatearekiko sentibera eta konprometitua bazara, zeuretzat duzu Negozioen Kudeaketako eta Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradu bikoitzean.

\* Gradu bikoitz hau Leioako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean eta Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Elkano) irakasten da.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

### Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Negozioen prozesu eta eragiketak ulertzeko, edozein eratako delarik ere; hauen guztien gestiorako tresnak aplikatzeko; merkatu globalizatuen testuinguruan, ekonomia eta enpresa errealitatearen markoa, elementuak eta harremanak ezagutzeko; bezeroak hartu, aholkuak eman eta beren ordezkari jarduteko, lan harremanen eremu ezberdinetan behar bezala negoziatuz; gizarte jarrera sentibera garatzeko, lan, gizarte eta enplegu arloan pertsonak eta kolektibo sozialek pairatzen duten bazterkeria, zapalkuntza eta gizarte zein kultur edo genero bazterketaren aurrean jarrera informatua izango duzularik.

### Irteera profesionalak:

Edozein tamainatako enpresetan eta administrazio publikoan, zereginotan:

- Enpresen kudeaketa integrala
- Ekonomia, finantza, zerga eta lan arloetako kudeaketa eta aholkularitza
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Giza baliabideen zuzendaritza eta kudeaketa
- Finantza, kontabilitatea eta ikuskaritza zuzendaritza
- Aholkularitza eta lan kudeaketa sindikatu edo enpresa batean gizarte gradudun moduan
- Langile eta enpresen ordezkari judiziala
- Lan sustapenerako eta laneratzeko estrategiak landu eta ezartzea
- Lan arriskuen prebentzioa
- Administrazio publikoa: ekonomia eta finantza gestioa, diruzaintza, lan ikuskaritza, laneko segurtasun eta osasuna eta beste
- Irakaskuntza, unibertsitatean, bigarren hezkuntzan eta lanbide hezkuntzan

Gainera, zure enpresa-proiektua abian jartzeko beharrezkoak diren tresnak eta ezagutzak izango dituzu.

**Pertsona sortzailea bazara, zenbakiekin trebea, ulermen abstraktua eta arrazamendu logikoa badituzu, eta enpresaren mundua eta errealitate ekonomiko eta soziala interesatzen bazaizkizu, Ingeniaritza Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.**

---

## IKASKETA PLANA

---

### LEHENENGO MAILA 69 kreditu (oinarrizko 63 kreditu + nahitaezko 6 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Gizartearen eta Lan Harremanen Historia
- Zuzenbide Zibila
- Konstituzio Zuzenbidea
- Lan Arloko Soziologia
- Ekonomia I: Sarrera
- Matematika I

#### 2. lauhilekoa

- Gizartearen eta Lan Harremanen Historia
- Administrazio Zuzenbidea
- Sozietateen Zuzenbidea
- Ekonomia II: Politika Ekonomikoak
- Estatistika I
- Matematika II

---

### BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 39 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Lan Zuzenbidea
- Sindikatu Zuzenbidea
- Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa
- Lan Arloko Psikologia
- Kontabilitaterako Sarrera
- Merkataritza Zuzenbidea
- Kudeaketarako Informatika

#### 2. lauhilekoa

- Lan Zuzenbidea
- Sindikatu Zuzenbidea
- Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa
- Erakundeen Soziologia
- Zerga Zuzenbidea eta Lan Arloko Zuzenbidea
- Marketinaren Oinarriak
- Finantza Kudeaketa

---

### HIRUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Gizarte Ikerketarako Teknika Kualitatiboak
- Ekonomia III: Kontsumitzaileak, Enpresak eta Merkatuak
- Estatistika II
- Finantza Matematika
- Finantza Kontabilitatea

#### 2. lauhilekoa

- Lan eta Gizarte Politikak
- Laneko Harremanen Teoria eta Egitura
- Negoziaziorako Teknikak
- Enpresen Kudeaketa I: Enpresa Ekonomia
- Sozietateen Kontabilitatea
- Nazioarteko Negozioak

---

### LAUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Laneko Osasuna eta Prebentzioa
- Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Enpresen Kudeaketa II: Lanaren Antolakuntza eta Lan Metodoak
- Ekonomia eta Ogasun Sistema
- Marketineko Erabakiak
- Enpresarako Ingelesa I

#### 2. lauhilekoa

- Laneko Osasuna eta Prebentzioa
- Ikasgelako Praktika I
- Inbertsioen Analisia eta Hautapena
- Kostuen eta Kudeaketaren Kontabilitatea
- Enpresarako Frantsesa
- Enpresarako Ingelesa II

---

### BOSGARREN MAILA (72 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Lan Arloko Zuzenbide Prozesala
- Lan Ekonomia
- Auditoria Soziolaborala
- Munduko Ekonomia
- Enpresen Administrazioa
- Zerga Sistema

#### 2. lauhilekoa

- Gradu Amaierako Lana (Lan Harreman eta Giza Baliabideak)
- Gradu Amaierako Lana (Negozioen Kudeaketa)
- Enpresetako praktikak (Negozioen Kudeaketa)

# Gratu Bikoitza

## ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA + ZUZENBIDEA



### Jakintza adarra: **Gizarte eta Lege Zientziak**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzak prestakuntza erabatekoa eta osoa emango dizu, arlo juridikoan nahiz ekonomikoan. Jarduera juridikoak eta enpresarialak garatzeko aukerak identifikatzen eta aurreikusten ikasiko duzu, enpresa edo erakunde bat administratzen, antolatzen eta zuzentzen, eta zalantza egoeretan erabakiak hartzen. Gainera, zeure burua prestatuko duzu berrikuntza kudeatzeko eta zuzendaritzako trebetasunak aplikatzeko, baita arlo juridikoko jarduera profesioletarako ere.

Gratu bikoitzaren bidez, ikuspegi kualifikatu bat eskuratuko duzu, gaitasun kritiko handiagoarekin. Titulu bikoitz honek gaitasuna emango dizu zeregin espezifikokoak egiteko enpresetan eta erakundeetan, zeure burua egokituta egoera juridiko, ekonomiko, sozio-politiko eta teknologiko konplexu eta aldakorretara, estatuko nahiz nazioarteko ikuspegi batetik.

Gainera, seigarren mailan, ikasitako guztia praktikan jartzeko, nahitaezko tutoretzapeko praktikak egingo dituzu, erakunde publikoetan edo pribatueta.

Gratu Bikoitz hau bi Campusetan eskaintzen da:

- Bizkaiko Campusa: Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko), Bilbon.
- Gipuzkoako Campusa: Donostian, Zuzenbide Fakultatean eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean.

Hemen aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.



[Bizkaia](#)



[Gipuzkoa](#)

### Titulazio bikoitz honek gaitasuna emango dizu...

Enpresa baten –publiko nahiz pribatu, bertako nahiz atzerriko– edozein arlo funtzional kudeatzeko, integratzeko, antolatzeko eta zuzentzeko; Zuzenbide Publiko eta Pribatuko, eta enpresen administrazio, kudeaketa eta zuzendaritza arloko oinarri terminologikoak eta ezagutza mailakoak ulertzeko; arazo juridikoak, ekonomikoak eta finantzarioak konpontzeko, erabakiak hartuta era sortzailean.

### Irteera profesionalak:

Enpresa arloan eta arlo juridikoan, hainbat erantzukizun zereginetan:

- Enpresetako edo erakundeetako zerbitzu juridikoak
- Bulegoko abokatua edo estatuaren abokatua
- Enpresa aholkularitza
- Aholkularitza
- Notariotza eta erregistroa
- Estrategia zuzendaritza
- Ekonomia-finantza kudeaketa eta kudeaketa fiskala
- Giza baliabideen kudeaketa
- Kontabilitatea eta ikuskaritza
- Nazioarteko marketinaren eta merkataritza marketinaren kudeaketa
- Analisi ekonomikoa
- Banka eta finantza zerbitzuak

Gainera, zure enpresa proiektua martxan jartzeko tresnak eta ezagutzak izango dituzu.

**Enpresa mundua eta errealitate ekonomikoa, soziala eta politikoa interesatzen bazaizkizu, jakin-nahia baduzu, pertsona ekintzailea eta dinamikoa bazara, taldean aritzea atsegin baduzu, analisirako, gogoetarako, sintesirako eta kritikarako gaitasuna baduzu, eta gizarte gaiekiko sentikortasuna, argudiatzeko gaitasuna eta gatazkak konpontzen laguntzeko bokazioa, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza duzu aukerarik onena.**

## IKASKETA PLANA (BIZKAIA)

### LEHENENGO MAILA 75 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Enpresa Ekonomiarako: Sarrera
- Erromatar Zuzenbidea
- Konstituzio Zuzenbidea I
- Matematika I
- Zuzenbidearen Historia

#### 2. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Historia Ekonomikoa
- Konstituzio Zuzenbidea II
- Matematika II
- Zuzenbide Zibila I
- Zuzenbidearen Teoria

### BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 39 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Konstituzio Zuzenbidea III
- Kontabilitaterako Sarrera
- Mikroekonomia
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I
- Zuzenbide Zibila II

#### 2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
- Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza
- Europar Batasuneko Zuzenbidea
- Finantza Kontabilitatea
- Zigor Zuzenbidea I
- Zuzenbide Prozesala I

### HIRUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### Urtekoa

- Zuzenbide Zibila III

#### 1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea II
- Estatistika eta Datuen Analisia
- Kostuen Kontabilitatea
- Merkataritza Zuzendaritza: Sarrera
- Zigor Zuzenbidea II

#### 2. lauhilekoa

- Enpresari Aplikatutako Estatistika
- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea
- Merkataritza Zuzenbidea I
- Merkataritza Zuzendaritza: Politikak
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa II

### LAUGARREN MAILA 72 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea III
- Ekonometria
- Enpresaren Zerga Araubidea
- Finantza Zuzenbidea II
- Makroekonomia
- Zigor Zuzenbidea III

#### 2. lauhilekoa

- Egitura Ekonomikoa
- Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa
- Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza
- Merkataritza Zuzenbidea II
- Zuzenbide Zibila IV

### BOSGARREN MAILA 66 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika
- Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak
- Kontabilitate Analisia
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua I
- Zuzenbide Prozesala II

#### 2. lauhilekoa

- Enpresa Kudeaketarako Sistema Informatikoak
- Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena
- Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II
- Nazioarteko Zuzenbide Pribatua II
- Zuzenbide Prozesala III

### SEIGARREN MAILA 30 kreditu (praktiketako 12 kreditu + GRADU AMAIERAKO LANETAKO 18 kreditu)

- Nahitaezko Kanpoko Praktiak (Zuzenbide)
- Zuzenbideko Gradu Amaierako Lana (6 kreditu)
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana (12 kreditu)

## IKASKETA PLANA (GIPUZKOA)

### LEHENENGO MAILA 75 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

#### 1. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak
- Enpresa Ekonomiarako Sarrera
- Erromatar Zuzenbidea
- Konstituzio Zuzenbidea I
- Matematika I
- Zuzenbide Zibila I
- Zuzenbidearen Historia

#### 2. lauhilekoa

- Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak
- Historia Ekonomikoa
- Konstituzio Zuzenbidea II
- Matematika II
- Zuzenbidearen Teoria

### BIGARREN MAILA 75 kreditu (oinarrizko 33 kreditu + nahitaezko 42 kreditu)

#### 1. lauhilekoa

- Finantza Eragiketen Matematika
- Konstituzio Zuzenbidea III
- Kontabilitaterako Sarrera
- Mikroekonomia
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I
- Zigor Zuzenbidea I
- Zuzenbide Zibila II

#### 2. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea I
- Europar Batasuneko Zuzenbidea
- Finantza Kontabilitatea
- Zigor Zuzenbidea II
- Zuzenbide Prozesala I

### HIRUGARREN MAILA 66 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 60 kreditu)

#### Urtekoa

- Zuzenbide Zibila III

#### 1. lauhilekoa

- Administrazio Zuzenbidea II
